

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMI

Gabonak

12 zbk.

2005eko abenduaren 2a



María Morabide, Ines Lizarraga, Pepita Gurrutxaga, Zoila Izagirre, Gloria Cardenal, Pilar Garaiburu, Concepción Florenza, Encarna Gurrutxaga eta María Jesus Gurrutxaga 20eko hamarkadan, abenduaren 24arekin, Villabonako elizaren aurtean.

Bai, bai, badatoz Gabonak. Egun bereziak batzuentzat, ezer berezirik esaten ez duten jai egunak besteentzat. Jan eta edan gogotik etxe gehienetan. Neurririk eta askotan zentzurik gabeko erosketa mordoa data jakie-

netan. Aizu, erantzungo al zenioke ondorengo galderari: Zer dira zuretzat Gabonak? Ez da galdera erraza, ez horixe! Garai bateko ohiturek agian lagun dezakete zertxobait erantzuna argitzen. Zalantzarik gabe, zatoz gurekin!

JAIOTZA ETA GABONETAKO APAINGARRIAK

Eguberriak iritsi baino pare bat egun lehenago hasten ziren solaskideak etxean jaiotza jartzen, ilusio handiz hasi ere. “Karameleroanean edo bestelako dendaren batean saltzen zituzten jaiotzako figurak. Txikiak ziren, buztinezkoak-edo”. Denek ez zuten erosteko aukerarik izaten eta, irudiak eskuz egitea ere atsegin zutela azaldu digute hizlariak. “Ogi-mamiarekin ere egiten genituen figurak. Gutxi irauten zuten, ordea. Lehortu bezain laster puskatzen ziren eta” azaldu dute Pakitak eta Pepitak. Azken honek argizaria ere erabili izan zuen lan bererako, “argizariarekin figurak egiten moldatuz gero, ondo egoten dira gero. Gure amonak, lauki itxurako puska bat ematen zigun eta, gustura aritzen ginen lanean”. Batzuetan, animaliairen batzuk ere tartekatzen zituzten figurekin batera, “goatarekin egiten genituen arkumeak. Jostorratza eta hariarekin ateratzen genizkion nolabait hankak eta burua”. Jaiotzako paisaia antolatzea ere gustuko lana zen parte hartzaileentzat. Goroldioa erabiltzen zuten zelaia irudikatze. “Goroldioa bildu eta gero, ondo lehortzen uzten genuen lehenengo. Jaiotza jartzen hasi baino lauzpabost egun lehenago joaten ginen biltzera”. Txokolateak ekartzen zuen zilarrezko papera urrearen pare gordetzen zuten Gabonak iritsi aurretik, “errekaren lekuan jartzen genuen zilarrezko papera, ura irudikatuz. Garaitsu horretan txokolatea jaten bagenuen, papera txukun-txukun gordetzen genuen, dudarik gabe”. Eta bidea egiteko ere bazituzten bitartekoak, “ogi xehatua edo zerrautsa erabiltzen genuen kamioia egiteko. Kasuren batean igual hondarra ere bai”. Jaiotza jartzeko ez zegoen leku jakinik. Bakoitzak ohitura ezberdina zuen, “generalean etxearen sarreran jartzen zen, baina barruan jartzen zuenik ere bazen; egongelan edo sukaldetan”. Urtero egiten zen jaiotza berria, “hautsa hartzen baitzuen”. Jaiotzak etxeetan jartzen ziren nagusiki baina, diru-eskean ate-



Isabel Beraza

“Baserriaren inguruan nonahi izaten zen zuhaitza. Haietakoren bat apaintzen genuen”

ratzeko, mutil-koadrilek ere egiten zituzten. Elizan ere urtero ipintzen zuten, etxetan baino handiagoa.

Jaiotza jartzeaz gain, Gabonetarako etxea apaintzeko ohiturarik ba ote zen garai hartan? “Otsabin bizi nintzenean, hiru metroko pinua jartzen nuen etxeko terrazan. Menditik hartzen nuen. Orduan asko ibiltzen nintzen mendian eta garaia gerturatzerako, politena aukeratzen nuen. Guardari ez

zitzaien batera gustatzen zuhaitza etxera ekartzeta, begira-begira izaten nuen. Behin etxean, apaingarririk jartzen nizkion, eta argiak azaldu du Joxek. Isabelek ere gogoan du nola zuhaitza jartzen zuten etxean, “baseerriaren inguruan nonahi izaten zen zuhaitza. Haietakoren bat apaintzen genuen”. Gainerako solaskideek ez dute gogoan hazi arte, etxean zuhaitzik jartzen zutenik, “guk txikitari ez genuen arbolarik jartzen, geroagoko ohitura da hori”. Pepitak zuhaitzik ez baina, tximiniaren buelta apaintzen zutela aipatu du, “amonak, ilusio handiarekin, kolore ezberdineko apaingarririk jartzen zituen tximinitik zintzilik. Gu oso pozik, noski”. Gorostia hartzea orain debekatuta badago ere, garai hartan apaingarririk modura jartzen zuten hainbat etxetan. “Sortaka bat igual jartzen genuen ontziren batean. Orduan gorostia erruz izaten zen. Urritzen hasi zenezan debekatu egiten zuten hartzea”.



Jaiotza biziduna Villabonako plazan 1960ko hamarkadan.

LAGUNARTEAN KANTUAN, ABENDUAREN 24AN

Egunez neska eta mutil aritzen zen kantuan etxez etxe eta baserri berrir. "Villabonan, herriko buelta egiten zen. Izkiñatik barrena. Villabonatar gazteak gutxi ibiltzen ginen baserrietan, helduak gehiago. Bide asko egin behar zen diru gutxi harra-patzeko". Amasarrak taldean ateratzen ziren, "arrazoiren baten alde, diru-bila". Orain bezalaxe, abestu eta gero txapela pasatzen zuten etxez etxe edo baserri berrir zebiltzanean. Koadrilan zebiltzanak, euren artean banatzen zuten dirua, "gustura gainera". Kaleetatik talde handiak igarotzen zirenean, balkoietatik botatzen zuten dirua jasotzeko, maindirea eramaten zuten. Kasurik gehienetan, soinu eta guzti ateratzen ziren kantuan. Baziren iluntzez eta gauzez ateratzen ziren taldeak ere, mutil taldeak. Ilun-

tzetan, karroza hartuta ateratzen zen koadrila ugari. Eta karrozaren barruan jaiotza bizia, "herriarrek osatutakoa". Kantuan igarotzen zuten iluntzea eta batzuek baita gaua ere, "Igerategiko Joxe Mari gauerdian etortzen zen kantari". Giro aparta izaten zen abenduaren 24an. "Gaur baino gehiago abesten zen orduan, dudarik gabe. Oso giro polita sortzen zen". Egun hartan gehien abesten zuten kantua ekarri dute gogora parte hartzaileek. Doinurik gabe, hementxe hitzak:

Abenduko hilaren 24ean,
Jesus gure jabea
jaio da gabean.

Aberatsa zan baino

jaio zan pobrezan,
ez gaur asko bezala
ponpan ta grandezan.

Gainerakoan, Olentzarori zuzendutako kantua abesten zituzten asko. Gaur egun abesten diren berberak: *Olentzaro begi gorri* eta *Olentzaro joan zaigu*.

Amasara igotzen ez bazen ere, villabonatarrok oroitzen dira nola abenduaren 24ko iluntzean, Olentzaro herriko kaleetatik barrena igarotzen zen. "Bakarrik pasatzen zen, astoaren gainean. Ikazkina zenez, menditik etortzen zen aurpegia beltzez zikinduta. Bizarra zeukan. Aspaldikoa da Olentzaro, baina orduan, ez zuen oparirik ekartzen".



Agustín Yarza, Ignazio Mari Ayastui, Juan Jose Urruzola, Jose Mari Etxabe, Inaxi Amantegi, Maria Elena Arrieta eta Juani Urruzola Amasako elizaren atarian, 1950eko hamarkadan.



Amado Elorza, Juan Antonio Garzia, Jose Joakin Ayestaran, Pedro Elorza eta Juan Antonio Zufiria Villabonako plazan 1963 urtean.



1953 urteko abenduaren 24an, villabonatarrek Iru Aldeta etxean kantuan. Abesbatzaren zuzendaria, on Juan Bautista Cuevas.



1962ko abenduaren 24an, kantuan aritu zen amasar koadrila.

AURRETIK, SAN NIKOLAS



**Pakita
Lasa**

"Aingeruak zuek? Deabruak errazago! esaten ziguten behin baino gehiagotan dirua eman aurretik"

Abenduaren 24ko diru-eskea baino lehen, abenduaren 6an, San Nikolas egunarekin ere, kantu-kantari aritzen ziren hizlariak. "Ohitura hura galdu egin bada ere, egun hartan kantuan ateratzea aspaldiko usadioa zen". Taldeka ateratzen ziren, kalez jantzita gehienak "zenbatek izango zuen, ba, orduan baserriar jantzirik?". San Nikolas eguneko

kantuakongo gogoan dituzte, "bixikitatik gaztelaniaz abestu genituen egun hartako kantuak".

San Nicolas coronado
obispo fue muy honrado,
ale, ale, alegría
todo el mundo salvaría.
Aquí estamos dos (o tres, o cuatro, o seis...)
cantaremos dos (o tres, o cuatro, o seis...)
una limosnita por amor de Dios.

Dirua eskatzeko, ezbairik gabe, kantu bitxiak abesten zituzten:

San Nicolas kilis-kolas
toca la trompeta con la bayoneta,

si no me das limosna te mato la gallina.

Angeles somos,
del cielo bajamos,
para Jesucristo dinero pedimos.

"Aingeruak zuek? Deabruak errazago! esaten ziguten behin baino gehiagotan dirua eman aurretik". Jatekoa ere askotan ematen zieten etxe eta baserrietan, "intxaurrak edo pikuak gehienetan, garai horretan asko izaten dira eta". Gustura ateratzen ziren laguntartean kantuan. Eguraldi txarra ez zen aitzakia izaten. Zelebrekeriak ere bat baino gehiago; "eskolatik piper eginda atera izan ginen kantuan. Maisua konturatu eta, kozkorrekoka paliza ederra eman zigun hurrengo egunean" azaldu du Anjelek.

GABON GAUA, GOGOZ ESPEROTAKO AFARIA

Kalean giro ederra izaten bazen ere, iluntzerako etxera joaten ziren guztiak, "egun horretan ondo errespetatzen zen ordutegia. Familia biltzeko ohitura hori ederki errotuta zegoen, gaur baino hobeto". Afaritarako jaki nagusia aza-olioa zen etxe gehienetan. "Baserrietan barazki asko izaten zenez, azalorea ere jaten zen. Hala ere, gau horretan aza-olioa zen jaun eta jabe". Plater hura nola prestatzen zuten jakin nahiko duzue, ezta? "Aza, patata mordoxkarekin egosi ondoren, soberan zuen ura kendu eta olio errea botatzen zitzaion gainetik. Goxo-goxoa". Bigarren platera, txitxarroa izaten zen nagusiki. "Batziek bisigua edo bakailoa jaten zuten txitxarroaren orde, poltsikoaren arabera". Pausu baserrian, ardia hiltzen zuten 24ko gauari begira, "mondejuak jaten genituen guk" azaldu du Pepitak. Jaten zutena jaten zutela ere, oso berezia zen Gabon gaueko afaria. "Egunero jaten

genituen babarrunak edo babak alde batera utzi eta jaki diferentea izaten zen. Ilusioa handia, noski!". Halako afari batek postrea ere berezia behar. "Gabon gauean Errezil sagarrekin egindako konpota mahai guztietan izaten zen. Aran beltzak, mahaspasak... Gozatzeko, ahal zena botatzen zitzaion konpotari". Familia osoa biltzen zen etxean; aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak. "Denak batera egoten ginen. Afaldu eta gero kantuan aritzen ginen askotan. Baita kartakeran ere, punttuan edo seiko urrean. Orduan joko horiek besterik ez genezikien eta". Gau berezi horretan, familian alaitasuna izaten zela diote. "Aiton-amonak garai bateko ipuinak esaten zizkiguten. Antzinako kontuak. Gure aitona oso berezia zen ipuinak kontatzen, zigarro handia ahoan hartuta aritzen zen. Aho-zabalik egoten ginen hari begira". Eta oheratu, ez ziren nekatu arte oheratzen. Gau bereziak ordu-

tegia ere berezia! Gerra ondorenean, 'Misa de gallo' antolatzen hasi zen eliza. "Gu umeak ginela ez zen izaten. Geroztikako kontua da". Zer ote zen izen bereziko meza hori?, "Gaueko hamabietako meza. Nahi zuena joaten zen. Lehen urtean eliza bete egin zen, bigarrean erdi bete eta denborarekin, ia hutsa geratu zen. Ohitura hura ez zen ondo sustraitu".



**Pepita
Lasa**

"Gure aitona oso berezia zen ipuinak kontatzen, zigarro handia ahoan hartuta aritzen zen. Aho-zabalik egoten ginen hari begira"

EGUBERRI EGUNA, MAHAIAREN BEROA

Eguberri egunean, lehen-lehenik, meza nagusira. "Kantoreak elizan jaiera izaten baziren ere, Eguberri eguneko meza berezia zen. Ponpoxoagoa. Kantu ederrak abes-

ten ziren. Kantoreak batetik eta herria bestetik. Oharretxena musikariak, Eguberriarako pare bat pieza ere konposatu zuten". Mezaren amaieran bazen gustukoa

zuten eginbeharra. "Eguberri egunean, Urte berri egunean eta Errege egunean, mezaren amaieran, Jesus haurra ateratzen zuten musu emateko. Muin ematera ila-



Maria Luisa Zalakain

"Postrerako turroia: Alicante gogor-gogorra edo Gijona biguna. Almendrak osoan edo puskatuta. Bi turroi mota, besterik ez zen orduan. Hori bai, orain baino goxoagoak ziren"

ran gindoazenean, 'haurra sehaskan' kantua abesten genuen. Neska-kozkorra nintzenetik aurrera behintzat bai. Elizan jende asko bazen, bi haur ateratzen zituzten; aldarean jartzen zutena batetik eta jaiotzan zegoena bestetik" gogoratu du Pepitak. "Jesusi muin ematen genionean, eskuan poltsa hartuta, monagillo bat egoten zen ondoan. Txanponen bat botatzen genuen orduan zorrora, orain ez. Denborarekin ken-

du egin zuten ohitura hura". Eguberri egunean, arropa berezia janzten zuten apai- zek "eleganteagoa. Kasuilla, kapa eta estola dotore-dotorea. Arropa bereziak sakristian gordeta egoten ziren egun horietarako". Meza bukatu eta gero, gizonak tabernara, "batzuk Izkiñara, besteak Turkonera, Exekienera, Periodistanera... bakoitzak bere bidea hartzen zuen. Tragoxkarekin batera, besterik ez bazen ere, olibaren batzuk eskatzen genituen eta generalean, ardo txuria hartzen bazen, egun horietan edari bereziagoren bat eskatzen genuen, bermutatedo". Emakumeak, berriz, etxera; "nahikoa lan izaten zen bazkaria prestatzen". Lan ugari egiten zuten orduko emakumeek sukaldetan, "beharko lana egin, gogoz gainera. Dena eskuz egiten zen... Pentsa zenbat lan: bezperako afaria, bazkaria, ontzi guztiak garbitu...". Oilo zaharrarekin egingadako salda eta oilasko erreak izaten ziren bazkaltzeko. "Postrerako turroia: Alicante gogor-gogorra edo Gijona biguna.

Almendrak osoan edo puskatuta. Bi turroi mota, besterik ez zen orduan. Hori bai, orain baino goxoagoak ziren. Eta, Alicante jan nahi zuenak, erreminta onak behar". Mazapanak ere izaten ziren, aukera askoz gehiagorik ez. Egun berezietako bazkariaren ostean, pattarra edateko ohitura bazen, "dendetan kupeletan izaten zuten pattarra salgai. Botillarekin joan eta nahi zenuena eskatzen zenuen: laurden bat, litro erdi bat, hiru laurden edo litroa igual". Jan-edane-kin jarraituz, nola ahaztu; Eguberriak iris-terako, pozik jasotzen zuten lantegietako langileek saski desiratua. "Eguberrietarako, janariz eta edariz betetako saskia ematen zuten lantegietan. Bai Subijanan, Salvadoran, Portun, Aristegin... Turroia, txanpaina, koñaka, ardoa, txorixoa, melokotoia... Hamalau-hamabost gauza bai! Salvadoratik, joan den urtera arte bidali digute saskia etxera. Orain herritik joan direnez, ez dut uste iritsiko denik" aipatu du Pakok.

ANTZERKIA IKUSI. LOTERIAREKIN ABERASTU?

Urteko egun berezietan, antzerkia edo orduko hitzetan, teatroa izaten zen Zentroan (Centro Obrero Católico-ren egoitzan). Galerias Maria Jesus denda ezaguna jarri zuten leku hartan geroago. Ondo kokatu zarete, ezta? Bada, jakin ezazue hirurehun pertsonatik gora sartzen zela bertan eta elkarte modukoa zela. "Gure izebek egiten zuten lan hango kafetegian, ondorioz, ni ere behin baino gehiagotan aritzen nintzen laguntzen" dio Robertok. "Subijana lantegiko langileak ziren, oro har, bertako bazkideak. Hilabeteko kuota nik kobratzen nien askotan: bi erreale". Ekintza ezberdinak egiten ziren. Musika hitz egin genuenean, aipatu genuen nola kontzertuak izaten ziren tarteka. Antzerkia ere egiten zen, ordea. Eta lanak jendaurrean aurretik, entseguak ere bertan egiten zituzten. "Ni askotan han izaten nintzen, antzerkia ere egiten nuen. Zinerik eta telebista-

rik ez zen garaian, teatroa zegoenean, jendez gainezka betetzen zen aretoa. Bi erreale balio zuen sarrerak eta egunean hiru emanaldi eskaintzen genituen; bi arratsalde eta bat ilunabarrean. Eguberri egunean eta Urteberri egunean urtero izaten ziren emanaldiak. Urte batean 'Los golfos' izeneko antzezlanak aurkeztu genuen. Mutilak denak. Atrakzio handikoa zen, jendea gustura egoten zen begira. Neskek eta mutilek batera ere antzeztu genuen beste batzuetan". Villabonatarak ziren talde hartako kideak baina, Roberto askotan han egoten zenez, amasarra ere tartean izaten zen. "Memoria ona behar zen esan beharreko guztia gogoratzeko. Taularen azpian kontalaria egoten zen, paperak eskuan hartuta. Norbaiti esan beharrekoa ahaztuz gero, hark laguntzen zion".

Loterian jokatzeko ohitura aspaldidani-koa da, "txanponak zituenak, orduan ere



Roberto Garate

"Txanponak zituenak, orduan ere jokatzeko loterian. Eguberrietako loterian batez ere, Errege egunekoan ez horrenbeste"

jokatzeko loterian. Eguberrietako loterian batez ere, Errege egunekoan ez horrenbeste. Dezimoak 50 pezeta balio zuen, billete guztiak 500 pezeta". Robertok beste hiru lagunekin batera erosten zuten billetea, "100 pezetatik gora jartzen genuen bakoitzak. Nik tabernan lan egiten nuen, ez nuen arazorik izaten dirua lortzeko. Beste batzuek komeria gehiago izaten zuten. Zazpi edo zortzi urtetan jokatu genuen. 'Reintegroa' besterik ez zitzaigun egokitu, bi alditan. Nazkatu egin ginen eta jokatzeari utzi egin genion".

BIHURRIKERIAK, INOZENTE EGUNEAN

Abenduaren 28a egun handia zen garai hartako haurtzatza eta gazteentzat. Bihurrikeria ugari egiten zuten. "Poteak lotu. Asko gustatzen zitzaigun tranbiari poteak lotzea,

orduan apenas igarotzen zen automobilik eta. Txakurrei ere bai, martxa ederra eramaten zuten, bai horixe!". Era guztietako bihurrikeriak egiten zituzten, "amona gai-

xoak erosketak egitera ateratzen zirenean, astoaren 'pastillak' sartzen genizkien zumitzezko zestoan. Haietako emakume bati nire amaginarreba izatea suertatu zitzaion

hainbat urte geroago” gogoratu du barrez Joxek. Eskulanetan ere aritzen ziren, “bizkarrean ‘monigotea’ jartzen genuen askotan, noiz edo noiz mezu eta guzti. Behin txotxongiloa bizkarrean zintzilik zeraman herritar batek, ‘eres un cerdo’ esaldia zeukan idatzita”. Eskua irinetan sartu eta esku-marka txuri-txuriak uzten ere abilak ziren hizlariak. “Gogoratzen dudun txantxa xelebreena Tolosan gertatu zen, herriaren sarreran zegoen Tolosa tailerretan. Burdinezko txapekin egiten zuten lan bertan. Baserritarrek astoarekin etortzen zirenean, lantegiaren sarreran uzten zituzten lotuta.

Denbora luze uzten zituztenez, bertan egiten zituzten eginbeharrak animaliek. Ondorioz, astorik han ez uzteko eskatu zieten baserritarrei. Kasurik egiten ez zutela ikusita, astoaren perrak txapa gainean soldeatu zituzten. Baserritarra astoaren bila etorri zenean, ezin astoa mugitu” azaldu du Anjelek. Hori bai inozentekeria! Nolabait moldatuko zen baserritarra astoa eta txapa bereizteko. Lumanetarrek gustukoa zuten Inozente eguna. Egun batzuk lehenago hasten ziren zein txantxa egin pentsatzen. “Eguna iristeko irrikaz egoten ginen batetik. Beldurrak ere bai bestetik.



Joxe Ugartemendia

“Amona gaixoak erosketak egitera ateratzen zirenean, astoaren ‘pastillak’ sartzen genizkien zumitzezko zestoan”

Guk txantxa egin bai, baina ez baikenuen guri txantzarik egiterik nahi”.

URTEZAHAR ETA URTEBERRI. AGUR ETA ONGI ETORRI

Arratsaldea beste egunetakoa baino bereziagoa bazen ere, ez zen alde handirik izaten, “ez zen jairik egiten eta. Lana bukatu eta lantegitik ateratzea egokituz gero, mutilek lagunartean baso-erdiren batzuk hartzen genituen iluntzean”. Makinak geratzen ez ziren lantegietan, jai egun berezietan ere ez zen jairik izaten. “Salvadora eta Portu papertegietan erreleboka egiten zen lana. Makinak, ordea, ez ziren sekula geratzen. Behin baino gehiagotan joan ginen



Pako Etxenike

“Behin baino gehiagotan joan ginen lanera jai egun berezi horietan, gauez. Kasu horietan gerorrek egiten genuen festa”

lanera jai egun berezi horietan, gauez. Kasu horietan gerorrek egiten genuen festa. Izkiñia tabernan zer edo zer ekartzeko eskatu eta tarteren bat genuenean, lantegiko lagunek aparteko afaria egiten genuen; porteroaren atzetik. Giro pixka bat sortzen zen, bai. Urte dezente geroago, enpresek hala eskatuta, guardia juratuek egiten zituzten gaueko txandak” gogoratu dute Pakok eta Joxek. Ahal zuten familiako kide guztiak biltzen ziren Urtezahar gauean afaltzera. “Gabon gaueko afariaren antzekoa izaten zen. Berezia”. Afal ondorenean, nola ematen ote zieten amaiera urteari? Oro har, ez zuten urtea agurtzeko mahatsik jaten. “Guk hamabi mahatsak jaten genituen. Juxtu. Ordu batekorik ez zen izaten. Telebistarik eta irratiarik ez zenez, ordulariari begiratu eta gutxi gora-behera abesten ziren kampaikadak. *Din eta dan*, gure ama aritzen zen kantuan” adierazi du Joxek. Ez zen inor

kalera ateratzen orduan, “familia giroan geratzen ginen denak. Bururatu ere ez zitzaizgun egiten kalera ateratzea. Begira egun... Nor geratzen da etxean?”. Kalera ez, baina auzoekin elkartzen zen bat baino gehiago urteko azken gauean, “harreman ona genuen bizilagunekin biltzen ginen. Batzuetan haien etxera joaten ginen eta bestetan, haiek etortzen ziren gurera. Kartaketan aritzen ginen gehienetan. Punttuan”. Urte berria hurrengo egunean zoriontzen zen, ez Urtezahar gauean. “Kastellanoek ekarri zuten etxfuegoak botatzeko ohitura. Ordu-ra arte ez zen inolako surik izaten”. Urteberri eguna, berriz, inguruko ezagunei eta lagunei urtea zorionduz hasten zuten. Meza nagusia izaten zen jarraian eta, ohitura denez, horrelako egun batek eskatzen duen moduan, bazkari ederra egiteko biltzen ziren mahaiaren bueltan, “orduan ere, ahal zena egiten genuen”.



Amado Elorza, Pili Unanue eta Pedro Elorza villabonatar hirukotea etxez etxe kantuan, 1960 urtean.



Pedro Mari eta Mari Karmen Sagastume anai-arrebak Amasan, 1960ko hamarkadan.

OPARIAK, ERREGE MAGOEN MAGIA

“Umeak ginela, ez zen errege kabalgaririk izaten. On Eugeniok hasiko zuen, dotrina-ko danborrada hasi zuen bezalaxe”. Kabalgaririk izan ez arren, urduri eta pozik egoten ziren ume haiek ere erregeen zain. “Gurasoek kontatuta, bagenekien erregeek opariak ekarriko zizkigutela. Horretarako zapatak jarri behar, orde. Inoiz zapatarik garbitzen ez zuenak ere, gogo onez garbitzen zituen egun horretan. Lustrea ematen genien zapatei, zeinek brillo gehiago ateraritzen ginen”. Opari banaketaren unea atzo izan balitz bezala gogoratzen du Maria Luisak, “gure aitak izugarritzko ilusioa izaten zuen opariak banatzeko. Anai-arreba asko ginen eta sukaldean biltzen ginen denak. Isil-isilik. Aita leihoaren ondoan jartzen zen eta halako batean, zaldien urratsen hotsak entzun zituela esaten zigun, ‘uste dut pasa direla, uste dut pasa direla...’. Gu denak urduri. Pasa zirela seguru esaten zuenean, leihoa zabaldu eta anaia zaharrenak utzita-ko opariak banatzen zizkigun. Erregaloak oheratu aurretik ematea izaten zen gure aita-

ren ilusioa. Ez zuen hurrengo egunera arte itxaroteko pazientziarik”. Gainerako partaideek Errege egunean jasotzen zituzten opariak, “ohetik jaiki eta zapatatzen ondoan izaten genuen utzitakoa. Hura poza! Erregal-oa ez zen ezer handirik izaten baina ilusioa... izugarria! Horrenbeste jostailu eta opariren artean, oraingo umeek ez dute naturaltasun berdinarekin bizi une hori. Gainera, batzuetan pena ere hartzen dute telebistan ikusitako jostailua espero zuten bezalako ez dela ohartzen direnean”. Garai hartako opariak bestelakoak ziren, xumeagoak bai, baina baita zentzu eta sentimendu gehiagokoak ere. “Guri pilota uzten ziguten generalean. Aitak bere eskuekin egin-dako trapuzko pilota” azaldu du Joxek. Pepi-rak “niri urte batean eskularruak ekarri zizkidaten. Haiexek faltako nituen eta” esan du. Maria Luisak kartoizko panpinak ekarri ditu gogora. Etxe gehienetan txokolatezko konfite txikiak izaten ziren, kolore ezberdineko paperetan bilduta. Bakoitzak poltsa txiki bana izaten zuen normalean.



Anjel Egiño

“Egunak magia galtzearekin batera, aurrerantzean, opariak jasotzeko aukera ere galdu egiten genuen. Kasurik onenetan, jostailuen orde z arropa jasoko genuen handik aurrera”

Eta misterio haren egiazko aldea ezagutzen zutenean zer? “Orduan ere eskolan jakiten genuen. Ume batek besteari esanda. ‘Ez al dakizu? Opariak aitak eta amak uzten dituzte!’ . A ze disgustoa!”. Etxe batzuetan, egia ezagutzen zuten gaztetxoek, ez zuten oparirik jasoko handik aurrera. “Egunak magia galtzearekin batera, aurrerantzean, opariak jasotzeko aukera ere galdu egiten genuen. Kasurik onenetan, jostailuen orde z arropa jasoko genuen handik aurrera”. Ondoren-go alderaketarekin jarriko diogu azken puntua atal honi, “orain Olentzaro eta Erregeak. Zenbatu ezineko opari sorta. Lehen taxuzko bat egiterik ez eta hara non, orain bi”.



Amasako neska koadrila kantuan hasteko prest, 1950eko hamarkadan.



1962 urtean, elurak ez zuen oztopatu amasar koadrila kantuan ateratzea. Muztoi baserriaren kanpoan daude kantari gazteak.



Ageda Perez, Serafina Garzia, Maria Jesus Gurrutxaga eta Concepcion Florenza villabonatarrek dotore-dotore jantzita, 1920ko hamarkadan.



Joakin eta Maria Teresa Exeberria, Maria Jesus Otegi, Migel Artola, Benjamin Lasa eta Maritxu Gonzalez amasarrak 1940ko hamarkadan; adar, pandero, saski eta guzzi.

ATZOKO GABONAK ETA EGUNGOAK

Garai hartako Gabonetan, orain baino elur gehiago egiten zuela oroitzen dute hizlariak. Gabonek kolore txuria zuten haientzat. "Orain tarteka bai, baina orduan, Gabonak eta elurra eskutik lotuta etortzen ziren gehienetan". Solaskideek gustukoak zituzten Gabonak. Hala ere, barzuei tristura sortzen zien eta die oraindik ere garai horrek, "etxekoren bat falta baldin bada, tristeak dira" dio Pakitak. "Bestela ere, tristura ematen didate niri Gabonek; ez dakit zergatik. Gaztetan ere, tristura eragiten zidaten. Iluntzetan, mutil koadrilak karrozarekin kantuan ateratzen zirenean, hunkitu egiten nintzen" azaldu du Maria Luisak. Joxek, berriz, "nik

beti gauza bera esaten dut: hogeita lau urterekin ez nuen tristeak ote ziren pentsatu ere egiten, baina orain...". Garai bateko Gabonek eta egungoek batere antzik ez durla argitu dute hizlariak. "Gabonak, urtez urte doaz galtzen. Lehen zentzu bat zuten, erlijioarekin zuten lotura. Orain...". Kontsumismoak duen pisuaz ere hitz egin dute, "orduan gutxiarekin konformatzen ginen, beste aukerarik ez zegoen eta. Dirua izan bage-nu, zer egingo ote genukeen?". Egungo egoera gehiegizkoa dela uste dute hizlariak, "denetik asko eduki eta hala ere, gutxi dela iruditu. Jostailuekin ere berdin-berdin; uimeak opariak jaso eta jaso, batere ilusio-

rik gabe igual". Gauko giroa ere bestelakoa zela nabarmendu dute. "Herritarrek abesten bukatzen zutenean, isil-isilik geratzen ziren kaleak. Etxean afariak egokitzen zirenean, tabernak bederatzietarako ixten zituzten. Izugarriko errespetua izaten zen horretarako. Eta afal ondorenean, ez zen inortxo ere kalera ateratzen. Bururatu ere ez". Emakumeek sukaldean egiten zuten lana azpimarratu dute gizonak, "bartzari eta afari...; lan handia egiten zuten, bai. Gainera, garai hartako sukaldeetan ez zen lana errazteko batere aurrerakuntzarik". Gizonak, oro har, ez zieten laguntzen, "ez zegoen horretarako ohiturarik eta".

...ETA HURRENGOAN ZER:

Lanbide zaharrei erreparatuko diegu datorren zenbakian, 13.ean alegia. Iraganeko lanbideak ekarriko ditugu gogora. Hasi sal-tzaileengandik, garraiolarienganaino. Edo uztargileengandik al-pargateroenganaino... Garai hartako herritarrek oso langi-leak ziren; bizimodua aurrera atera nahi bazen, gogor egin behar lan. Bidean galdu da haietako lanbide asko, hainbat langin-tzaren oihartzunik apenas entzuten den. Hortxe izango gara gu, ahan-zturaren atea zabaltzeko. Urtarrileko lehen asteburura arte, ondo izan!



Irakaspen polita eman dígute oraingoan ere gure lagunek. Luxu gutxiagorekin edo, batere luxurik gabe, ondo baino hobeto moldatzen ziren. Alaitasuna baita izan daitekeen luxurik handiena... Egunberri on guztioi!



Isabel Beraza



Pakita Lasa



Pepita Lasa



Maria Luisa Zalakain



Roberto Garate



Joxe Ugartemendia



Pako Etxenike



Anjel Egiño

EGUTEGIA

Amasa-Villabonako argazki zaharrek osatutako egutegia eskuratu nahi izanez gero, jakizu, bost euroren truke, ohiko lekuetan salgai dagoela.



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena, Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratuz zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza KULTURA SAILA